

# Kokapen aditzak euskaraz. Adposizioen eta aditzen erdigunean

Ane Berro

UPV/EHU, Université Bordeaux Montaigne

## **Laburpena**

*Lan honetan euskarazko kokapen aditzak (e.g. etxeratu) deskribatu eta aztertuko ditut. Hale & Keyserren (1993) eta Oihartzabalen (2003) analisiarekin bat etorritz, aditz horiek adposizio sintagma (PP) baten gainean eratzten direla proposatuko dut. Halaber, oinarrian dagoen PP mota zehatz batekoa dela erakusten dut —HelburuS, eta ez LekuS (\*etxeantu), JatorriS (\*etxetiktu), ezta EskalaS (\*etxerantztu) ere (Pantcheva 2011)—. Kokapen aditzen murriztapen hori azaltzeko, aditz isilaren hipotesia alde batera utzi behar dela proposatuko dut eta, haren ordeztu, beste azterbide bat jorratuko dut, alegia, gertakariaren eta adposizioaren barne-egituraren paralelotasunarena.*

## **0. Sarrera\***

Euskaraz askotariko aditz eratorriak daude. -*Tu* atzizkia (partizipioa edo infinitiboa sortzeko erabiltzen den atzizkia, besteak beste) hizkuntzan beste funtzio bat betetzeko erabiltzen diren hainbat elementuri lotzen zaie. Esate baterako, osagarritzat hartzen duen elementua adjektibo gisa ere erabil daiteke aditz batzuen kasuan (e.g. *ilun-du*, *gorri-tu*, *handi-tu*, *txiki-tu*) (1), izen baten moduan beste batzuetan (*dantza-tu*, *dirdira-tu*, *apur-tu*) (2), adposizio<sup>1</sup> adlatiboko

---

\* Ikertzen hasi nintzenetik Ibon Sarasolak bakarka eta elkarlanean egindako hiztegiak eta corpusak baliatu ditut nire lana elikatzeko. Horregatik, harekin zor handia dudala sentitzen dut. Eskerrak eman nahi dizkiot, eta ezer gutxi bada ere, lan hau eskaini. Eskerrak eman nahi dizkiet baita ere Beatriz Fernandezi, Ricardo Etxepareri eta Gogo Elebiduneko ikerkideei, iradokizun, zuzenketa, eta gaiak izan ditugun elkarrizketa interesgarriengatik. Lanaren erantzukizun osoa nirena da. Emaitza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez. Gainerakoan, ikerketa lan hau zenbait ikerketa proiekturi esker egin dut: Eusko Jaurilaritzaren BF109.203 doktoretza aurreko beka eta IT665-13 egitasmoa, eta Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren FFI2011-26906 egitasmoa.

<sup>1</sup> Adposizioa hitza erabiliko dut, gramatikan ohi den bezala, postposizio zein preposizio kategoriaz hitz egiteko.

sintagma baten moduan (*etxera-tu*, *itsasora-tu*) beste batzuetan (3), baita adposizio instrumentaleko sintagma gisa ere (*urez-ta-tu*, *olioz-ta-tu*) (4).

- (1) Sukaldariak berakatzak txikitu ditu
- (2) Neskek asko dantzatu dute
- (3) Arrantzaleak itsasoratu dira
- (4) Mirenek landarea ureztatu du

Artikulu honetan adposizio adlatiboko sintagmetan eraikitzen diren aditzen (3) gainean arituko naiz, hots, *itsasora-tu* bezalako gainean. *Kokapen aditzak* deituko ditut, Hale & Keyser hizkuntzalarien (1993, 2002, 2005) ingelesezko *shelve* ‘apaleratu’ bezalako aditzen deiturari jarraituz. *Kokapen aditzetan*, *-tu* atzizkiak osagarritzat hartzen duen adposizio sintagma bakarrik Helburu Sintagma izan daitekeela erakutsiko dut, eta horrela, aditz isilaren hipotesia alde batera utzi behar dela proposatuko dut. Haren ordeaz, bestelako analisi-bide bat iradokiko dut hemen: kokapen aditzen murriztapenak ulertzeko, adposizioen eta aditzen dekonposizioaren isomorfismoa hartu behar dugu kontuan. Izan ere, aditzek eta adposizioek barne egitura bertsua dute, eta hori kokapen aditzak ulertzeko gako nagusietako bat da.

Eratorriak diren kokapen aditz guztiek aditz forma berbera dute: analitiko (euskalaritzan *perifrastikoa* deitu izan dena). Euskarazko aditzak nagusiki bi aditz formetan ager daitezke: sintetikoa (edo *trinkoa*) (5) eta analitikoa (1)-(4). Gaur egun, aditz forma sintetikoa hamabost bat aditzekin erabiltzen da bakarrik (Euskaltzaindia 1997), esaterako, *joan*, *etorri*, *ekarri*, *eraman* eta *jakin* aditzekin. Forma sintetikoaren aspektu balio oso zehatza da: gertaeradun aditzetan interpretazio jarraikorra izaten du (5a) eta egoera aditzetan, aldiz, mugagabea (5b) (Euskaltzaindia 1997).

- (5) a. Neskek sagar poltsa bat dakarte
- b. Haizeak gauza asko dakizki

Bestalde, euskarazko aditz formarik erabiliena analitikoa da. Aditz guztiekin erabil daiteke, forma sintetikoa ez bezala, forma emankor bakarra da eta askotariko aspektu-balioak adierazteko balio du. Forma analitikoak bi osagai ditu: aditz lexikoa eta aditz laguntzailea. Adierazi nahi den aspektu balioaren arabera, aditz lexikoak atzizki zehatz batekin agertzen da. Aspektu burutuan, esaterako, aditz lexikoa *-tu/-i/-n/-ø* atzizkiez lagundurik egoten da. Azalpena errazteko, hemendik aurrera *-tu* atzizkia baliatuko dut forma hauei guztiei erreferentzia egiteko.

Aipatu dudan bezala, *-tu* atzizkia partizipio moduan erabiltzen da forma analitikoan (6). Horrekin batera, *behar* edo *nahi* bezalako aditz modalen osagari gunean ere ager daiteke (7) (Haddican & Tsoulas 2012 besteak beste). Gainerakoan, aditzen izendapen-forma ere bada, eta mendebaldeko euskalkietan, aginterazko forma gisa ere erabiltzen da (8).

- (6) Neskak etorri dira
- (7) Neskek etorri nahi dute
- (8) Etorri hona!

Ekialdeko euskalkietako subjuntibozko, ahalerazko eta aginterazko forma analitikoetan izan ezik, aditz lexikoa ezin da atzizkirik gabe azaldu. Aspektu ez-burutuan, *-tu* atzizkiaren ordeaz, *-tzen* atzizkiak lagutzen du aditza, *ari* progresiboarekin erabiltzen den atzizki berbera, hain zuzen. Hizkuntzalari batzuek (Demirdache & Uribe-Etxebarria 1997; Mateu & Amadas 1999; Laka 2004, 2006) *-tzen* atzizkia bi morfemetan banandu daitekeela proposatu dute: *-t(z)e* izengilea eta *-n* adposizio inesiboa (ikusita baita ere Euskaltzaindia 1991: 245).

## 1. Kokapen aditzak

### 1.1. Kokapen aditzak euskaraz

Euskarazko kokapen aditzak oro har adposizio adlatiboarekin osatzen dira —hau da, *-ra*, *-(e)tara*, *-engana* (hemendik aurrera *-ra*)— eta oso eman-korrek dira (Mujika 2008). *Egungo Euskararen Hiztegia* (EEH) (Sarasola 2010) begiratu gero edo *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG) (Sarasola, Salaburu, Landa & Zabaleta 2011) arakatzeko *Corsintax* (Landa 2008) baliatu gero, adibide asko aurkituko ditugu. Hona hemen horietako batzuk:

- |                           |                |
|---------------------------|----------------|
| (9) aberriratu            | eskuratu       |
| argitaratu                | etxeratu       |
| ahalbide(ra)tu            | gaineratu      |
| aurreratu                 | giltzape(ra)tu |
| aldendu                   | itsasoratu     |
| araupetu                  | mahaigaineratu |
| auzi(ra)petu <sup>2</sup> | munduratu      |

Ondoren *itsasoratu* eta *munduratu* aditzen bina adibide, EEHtik hartutakoak.

- (10) Zazpigarrenean, haizea baretu zen, eta *itsasoratu* ginen (J.K. Igerabide 2007: 88)
- (11) Ordubete geroago beste ontzi bat *itsasoratu* da (*Berria*, 2006-04-04)

<sup>2</sup> *Auziperatu* aditza ez da agertzen *Corsintax* arakatzailan, baina 180 agerraldi ditu *Ereduzko Prosa Gaur*ren. *Corsintax*en, eta baita *Hiztegi Batuan* ere, *auzipetu* bakarrik jasotzen da, adlatiborik gabe.

- (12) Ez zekien zergatik baina bere sabeletik *munduratuko* zen lehen haurra neska zatekeela imajinatu zuen Maianak (I. Borda 2005: 50)
- (13) Ez al zara, bada, *munduratu*, lilura zaitzaten? (P. Zubizarreta 2006: 217)

Badirudi aditz hauek oso barne egitura eta adiera gardena dutela.<sup>3</sup> Gehienak *-ra* adposizio adlatiboaz eta adposizio horren *Eremuak* (ingelesez *Ground*) batuz sortu dira, *aberri-ra-tu*, *argi-tara-tu* eta *ahalbide-ra-tu* aditzetan bezala. Talmyren (2000) arabera, adposizioek bi entitatearen arteko harremana zehazten dute; *Irudiaren* (ingelesez *Figure*) eta *Eremuaren* artekoa. Irudia adposizioaren «subjektua» dela esan genezake, mugi daitekeen entitate. Eremua, aldiz, Irudiaren kokapena edo mugimendua zehazteko erreferentziatzen hartzen den bigarren entitatea da, mugitu ezin daitekeena. Aipatu berri ditudan hiru aditz horietan, *aberri*, *argi* eta *ahalbide* dira, hurrenez hurren, adposizioaren Eremua. Zerrendatu ditudan beste aditz batzuetan beste osagai bat dago Eremuaren eta adposizioaren artean, hots, *-pe-* eta *-gain-*, *auzipe(ra)tu* eta *mahaigaineratu* aditzetan, hurrenez hurren. Osagai horiek *postposizioak* edo *kokapen izenak* deitu izan dira (Euskaltzaindia 1991; de Rijk 2008; Eguzkitza 1997; Hualde 2002; Etxepare 2013), baina nik *Ardatz Zatiak* deituko ditut, Svenoniusi (2006) eta Etxepareri (2013) jarraituz. Ardatz Zatiek beren adiera adierazteko beste entitate baten beharra dute, alegia, elementu erlazionalak dira. Entitate hori ardaztat hartuta, entitate horren zati bat edo entitate horrekiko harremanean dagoen espazioa adierazten dute, demagun, objektu baten gaineko zatia edo gaineko espazioa. *Auzipe(ra)tu* aditzean, auzi baten azpian edo mendean dagoen egoera batez ari gara, eta hori da, hain zuzen, adposizioaren Eremua. *Mahaigaineratun*, bestetik, mahaiaren gainazala hartzen dugu Eremutzat. Azkenik, aipatzekoa da ere zenbait aditzek adposizio adlatiboa hautazkoa dutela (e.g. *auzipe(ra)tu*, *giltzape(ra)tu*), eta batzuen kasuan, bereziki, ez dutela adlatiboa hartzen, esaterako, *aldendu* eta *araupetuk*.

Kokapen aditzetatik kanpo, adlatibozko morfema Helburua adierazten duten sintagmetan aurkitzen dugu, gehienetan nolabaiteko mugimendua adierazten duten predikatuen osagarri gisa. Hona hemen *Ereduzko Prosa Gauretik* hartutako adibide batzuk:

- (14) Egiatzko mundutik amets *mundura* joateko, ipuina izan da orain arte zubi (F. Juaristi 2002: 138)
- (15) *Mundura* atera nintzen orduan (A. Gorostizu, *Berria* 2004-12-15)

<sup>3</sup> Aditz horiek, jakina, lexikalizazio mailak erakusten dituzte. *Atera* kokapen aditza, adibidez, nahiz eta jatorrian *ate-ra* adposizio sintagmari esker osatu den, gaur egun esanahi desberdin samarra dauka, *irten* aditzarenaren antzekoa eta ez *atera joan* esapidearena. Antzeko zerbait esan genezake *begiratu* aditzaz. Lan honetan, egitura eta esanahi gardena duten aditzen gainean baino ez naiz arituko.


- (16) Tarteka burua jaso eta *itsasora* begirutzen du... (M. Etxebarria 2003: 206)  
 (17) Hidrokarburoak *itsasora* nahita isurtzea zigortu egingo dute (*Berria*, 2004-01-14)

Nahiko garbi dago *munduratu* eta *itsasoratu* bezalako kokapen aditzak (14)-(17) adibideetako adposizio sintagmen gainean sortzen direla. Oihartzabalek (2003) hala iritzi dio, Hale & Kayserren (1993, 2002, 2005) analisia jarraituz. Hale & Kayserrek (H&K hemendik aurrera) izenetatik eratorritako kokapen aditzek, *shelve* ‘apaleratu’ esaterako (18), oinarrian preposizio sintagma bat dutela proposatu zuten.

- (18) I shelve-d the book  
 Ni apaleratu-LEH DET liburu  
 ‘Liburua apaleratu nuen.’

H&Kek, beren 1993ko lanean, izenetatik eratorritako aditzak —*shelve* ‘apaleratu’, *saddle* ‘aulkia jarri’, *dance* ‘dantzatu’ etab.— sintaxiak arautzen duen maila lexiko batean sortzen direla proposatu zuten. Maila lexiko hura *sintaxi-l(exikoa)* deitu zuten. Horrela, defendatu zuten argumentu egitura sintaktikoa dela eta rol tematikoak egitura-harremanen arabera ezartzen direla. Lan honetan aztergai ditudan kokapen aditzen kasuan, baita *locatum* aditzetan eta adjektiboetatik eratorritakoetan ere, aditzak hainbat *oskol* (Larson 1988) dituela proposatu zuten. Beheko egituran (19) ikus daitekeenez, aditzak preposizio sintagma bat hartzen du osagarri gisa. Aditza eta preposizioa buru hutsak dira eta preposizioaren osagarria, Eremua, da lexikoki zuzenean azaleratzen den osagai bakarra, kasu honetan, *shelve* ‘apal’.

- (19) *SHELVE* ADITZAREN SINTAXI-L EGITURA; INKORPORAZIOAREN ANALISIA



H&Ken (1993) arabera, *shelve* izena preposizioa inkorporatzen da lehenik eta aditzera ondoren, buruz buruko inkorporazioaren bidez eta *Kategoria Hutsaren Hatsarrearekin* bat etorri (Chomsky 1981). Hizkuntzalari hauen lan berantiaragoetan (H&K 2002), inkorporazioaren analisiaren ordez *kon-*

*flazioa (conflation)* izenekoa aldarrikatzen dute. Konflazioa osagarriaren erro fonologikoa buruan kopiatzean datza. Hala ere, azkenean (H&K 2002, 2005), bi azterbide horiek, inkorporazioa eta konflazioa, baztertu egiten dituzte, eta hautapen analisi baten alde egiten dute. Hautapen analisi horretan, *shelve* aditzaren eduki fonologikoa aditzean bertan sortzen da. Eduki fonologiko horrek, erroak, hautapen tasun aberatsak ditu eta preposizio sintagma bat zilegiztatzeko gai da aditzaren osagarri gunean. Preposizio sintagma hori hutsa izan daiteke edo, bestela, agerikoa, beti ere, erroaren kognadoa edo hiponimo bat baldin bada, esaterako *he shelved the books on the windowsill* perpausean bezala (H&K 2002: 88), non *on the windowsill* sintagma —‘leiho-ertzean’— *shelve* aditzaren hiponimo bat den.


Utz dezagun, momentuz, alde batera inkorporazio eta hautapen analisisien eztabaida eta gatozen orain kokapen aditzen adposizio sintagmaren analisisira. Oihartzabalek (2003), H&Kren analisisa segituz, proposatzen du euskarazko kokapen aditzak adposizio sintagma baten gainean eraikitzen direla, eta neuk ere analisi hori bera hartuko dut oinarri. Alabaina, adposizio sintagma hori mota zehatz batekoa dela erakutsiko dut. Kokapen aditzen izaera hobeto ulertzeko, adposizioen dekonposizioaren azterbidea jorratuko dut. Aditz horietan, gutxienez, Bide (*Path*) eta Leku (*Place*) adposizioak egon behar dira. Jackendoffek (1983) adierazi zuen Bidearen esanahi-egitura bi azpiosagaie-tan banatu daitekeela: Bidea eta Lekua. Hari segika, hizkuntzalari batzuek bi osagai horiek sintaxian buru bana islatzen dutela defendatu dute (Van Riemsdijk & Huybregts 2002; Svenonius 2006, 2008 besteak beste). Haien arabera, Bide adposizioak Lekua hautatzen du. Etxepare & Oihartzabalek (2012) eta Etxeparek (2013) lan honetan hizpide dugun *-ra* adlatiboak bi buru horiek lexicizatzen dituela adierazi dute, eta hori proposatuko dut nik ere.

Hortaz, kokapen aditzen sintaxian bi buru horiek islatzen dira, eta hau ez da nolnahi ere harritzekoa, izan ere, kokapen aditz asko, *aurreratu* kasu, *jarri* bezalako aditz baten eta adposizio inesiboko sintagma baten bidez parafrasea daitezke (20b):<sup>4</sup>


- (20) a. Irakasleak neskak aurreratu ditu  
 b. Irakasleak neskak aurrean jarri ditu

Bigarren perpausean, adposizio inesiboko sintagmak Leku burua lexikalizatzen du, eta Bide, aldiz, *jarri* aditzaren bidez azaleratzen da. Lehen adibidean (20a), ordea, bi buru horiek *aurreratu* aditzaren bidez ahoskatzen dira, beheko egituran erakusten dudan moduan:

<sup>4</sup> (20a) adibideak beste adiera bat ere badu, zeinetan irakaslea bera nesken aurrera mugitzen den (eta ez ditu, hortaz, neskak aurrera ekartzen). Adiera horretan, neskak ez dira Bide adposizioaren Irudia, baizik eta Eremua. Irakaslea izango litzateke Irudia, nesken aurrera mugitzen baita.

(21) *Aurre-(ra)-tu*

Atal honen hasieran aipatu dudan bezala, aditz batzuetan beste osagai bat agertzen da adposizio adlatiboaren eta Eremuaren artean, esaterako *pe* eta *gain auziperatu* eta *mahaigaineratu* aditzetan. Etxepareri (2013) jarraituz, elementu hauek Ardatz Zatiak direla proposatuko dut.<sup>5</sup> Svenoniusek (2006) Ardatz Zatia Leku Sintagmaren azpian dagoen buru sintaktiko (funtzional) bat dela proposatzen du. Hortaz, *mahaigaineratu* bezalako aditz batek lau osagai ditu: Eremua (*mahai*), Ardatz Zatia (*gain*), Lekua eta Bidea. Azken bi horiek adlatiboaren bidez (*era*) azaleratzen dira.

(22) *Mahai-gain-era-tu*

Nabarmentzekoa da *pe* Ardatz Zatia adlatiboaren laguntzarik gabe ager daitekeela (*auzipetu* eta *araupetun* adibidez). Hori ez da Ardatz Zati guztiek duten gaitasuna, izan ere *gain*, *aurre* eta *atze* adlatiboarekin agertu behar dira derrigor kokapen aditzetan (*\*mahaigaindu*, *\*aurretu*, *\*atzetu*). Salbuespen honetaz hurrengo atalean (§1.2) arituko naiz.

<sup>5</sup> Etxeparek (2013) erakusten du elementu hauek bi erataria erabil daitezkeela euskaraz: (a) modu erreferentzian (i); edo (b) beste elementu baten *islatzaile* gisa (*projective*) (ii).

- (i) Etxearen aurrea (Etxepare 2013: 18)  
'Etxearen aurrealdea, fatxada'
- (ii) Etxearen aurrean  
'Etxearen aurreko espazioan'  
'Etxearen aurrealdean, fatxadan'

Bi erabilera horiek semantikoki eta sintaktikoki desberdintzen direla aldarrikatzen du Etxeparek, eta horregatik, bigarren erabilera horretan Ardatz Zatiak direla proposatzen du, Svenoniusek (2006) analisisian oinarrituz. Nik ere azterbide horri eutsiko diot.

## 1.2. Ezinezko kokapen aditzak

Aurreko atalean euskaraz existitzen diren kokapen aditzak aztertu ditut. Erakutsi dudanez, oinarrian duten adposizio sintagma hiru (edo lau) osagai ditu: Eremua, (Ardatz Zatia), Lekua eta Bidea. Atal honetan, ezinezko kokapen aditzak arakatuko ditut, horrelako aditzak sortzeko muga non dagoen jakiteko eta horrela, haien adposizio izaera hobeto ulertzeko. Ikusiko dugunez, euskarazko kokapen aditzak ezin daitezke eratu Leku sintagma soil baten gainean, ezta Jatorri sintagma baten edota Eskala sintagma baten gainean ere.

Lehenik erakutsiko dut Leku sintagma soilak ezin direla kokapen aditz bihurtu. Kokapen aditzak ezin dira eraiki inesiboaz *-(a)n/-(e)tan/-rengan*) azaleratzen den adposizio sintagma baten gainean (Mujika 2008):

### (23) EZINEZKO KOKAPEN ADITZAK INESIBOAZ

*etxe-an-tu	baina	etxe-ra-tu
*ohe-an-tu	baina	ohe-ra-tu
*esku-an-tu	baina	esku-ra-tu
*bere-gan-tu	baina	bere-gana-tu

Kokapen aditz bihurtzeko leku sintagma soilen gaitasun falta lexikalizazioa arautzen duen hatsarre batekin loturik egon daiteke: *Erabateko Lexikalizazioa* (ingeleseaz *Exhaustive Lexicalization*) (Fábregas 2007; Ramchand 2008b).

### (24) ERABATEKO LEXIKALIZAZIOA<sup>6</sup>

Sintaxi egiturako adabegi guztiak eduki lexikoaren bidez identifikatu behar dira.

Kokapen aditzek Bide burua dute beren egituretan eta buru hori lexikoki azaleratu behar da, Erabateko Lexikalizazioaren arabera. Euskarazko adposizio inesiboak Leku burua baino ez du azaleratzen, eta ondorioz, inesiboaren gainean eratzen den kokapen aditza ez da gramatikala izango (23), horrelako aditz batean Bide burua ez baita inongo hiztegi alerekin identifikatzen. Bide burua ez da azaleratzen eta horrek ez du betetzen Erabateko Lexikalizazioa.

(24)ko hatsarreak beste ondorio teoriko bat ere badu, hain zuzen, lehengo aipatu dudan H&Ken (1993) eta Oihartzabalen (2003) teoriarekin ze-

<sup>6</sup> Itzulpena nirea da. Hauek dira jatorrizko deitura eta azalpena (Fábregas 2007; Ramchand 2008b: 122).

(iii) Exhaustive Lexicalization

Every node in the syntactic representation must be identified by lexical content.



rikusia duena. Erabateko Lexikalizazioa benetan betetzen bada, ezin da isilpeko aditzik edo adposiziorik egon. Sintaxian dagoen buru orok izan behar du islapen lexikoa, eta hortaz, ezin genezake proposatu sintaxian indarrean dagoen buru bat, ondoren buru hori nolabait azaleratzen ez bada. Lan honetan, tesi hori defendatuko dut, alegia, kokapen aditzetan aditz buru isilik ez dagoela. Hala ere, beste azterbide batetik iritsiko naiz ideia horretara, isilpeko aditzaren kontrako froga enpirikoak erakutsiz.

Leku sintagma soilen banaketari dagokionez, norbaitek galde lezake aditz batzuetan zergatik azaleratu daitekeen Ardatz Zati soila, adlatiboaren laguntzarik gabe, esaterako, *araupetu* aditzean. Galderak bi erantzun posible ditu, eta zaila zait une honetan bietatik erantzun egokiena zein ote den erabakitzea. Erabateko Lexikalizazioaren barruan, bi aukera daude *pe* Ardatz Zatia bere kabuz agertu ahal izateko kokapen aditz batean: (i) *pe* morfemak hiru buru azaleratzen ditu, hots, Ardatz Zatia, Lekua eta Bidea; eta (ii) *pek* Ardatz Zatia eta Lekua azaleratzen ditu eta *-tu* atzizkiak egituraren zati dinamikoa lexikalizatzen du, beste aditz eratorri batzuetan bezalaxe, adibidez, *gorri-tu* (gorri bilakatu) eta *ama-tu* (ama bilakatu). Bi aukeretan Bide burua lexikalizatzen da, *pe* morfemaren bidez lehenengoan, eta *-turen* bidez bigarreanean. Momentuz, ez dut bi aukeren artean ziurtasunez baten alde egingo, nahiz eta bigarrena zuzenagoa iruditzen zaidan beste aditz eratorriei begiratuta.<sup>7,8</sup>

Kokapen aditzetatik harago begiratzen badugu, inesiboa zenbait predikaturan aurkituko dugu, nik dakidala, *egin* inergatiboetan —batez ere mendealdekoetan— (25a) eta *predikatu analitiko soiletan* (25b):<sup>9</sup>

- (25) a. INESIBODUN *EGIN* INERGATIBOAK  
 dantzan egin  
 borrokan egin  
 hegan egin
- b. INESIBODUN PREDIKATU ANALITIKO SOILAK  
 faltan izan  
 soberan egon  
 gogoan izan  
 begitan izan

<sup>7</sup> Edozein kasutan ere, bigarren hipotesia defendatuko banu, beste arazo bati aurre egin beharko nioke: *-tu* atzizkia egituraren zati dinamikoa lexikalizatzeko gai bada *araupetu* aditzean, zergatik ez da gai inesiboa daraman *\*etxeantu* bezalako batean? Azterkizun utziko dut arazo hau.

<sup>8</sup> Interesgarria da, halaber, hizkuntzen arteko konparaketaren ikuspuntutik, gaztelaniazko kokapen aditzetan erabiltzen den preposizioa. Adibideotan ikus daitekeenez, *en* preposizio lokatiboa (ez-dinamikoa) ageri da: *en-jaular*, *en-claustrar*, *en-carcelar*, *en-chironar*, *en-terrorar*, *en-amarar*, *en-emistar*, *en-colar*, *en-sillar*...

<sup>9</sup> Nik predikatu analitiko soilak deitu ditudan horiek de Rijkek (2008: 321-322) *Orainaldiko preteritoko Aditzak (Preterito-present Verbs)* deitzen ditu.

*Egin* inergatiboak gertaera aditzak dira; (25a)n zerrendatu ditudanak gertaerak izateaz gain, dinamikoak ere badira, inesiboa gorabehera. Lehen begiratuan, inesiboak Lekua baino azaleratzen ez badu, badirudi inesiboa eta dinamikotasuna ezin daitezkeela bateragarriak izan. Hala ere, ez dut uste aditz horien dinamikotasuna inesiboaren bidez lexikalizatzen denik, baizik eta *egin* aditz arinaren bidez. Hortaz, inesibodun *egin* inergatiboak ez dira arazo nire hipotesirako.

Zerrendatu dudan bigarren aditz multzoa (25b) interesgarria da. Kokapen aditzetatik bereizten dira bi ezaugarritan: (i) egoera predikatuak dira; eta (ii) ezin dira agertu *-tu* atzizkiaz lagundurik. Aditz horiek izendatu ahal izateko (25b) eta *-tzen* bezalako aspektu marka bat gaineratu ahal izateko, laguntzaile bat behar dute: *izan* aditz laguntzailea edo *egon* kopula lokatiboa. Bi desberdintasun horiek arrazoi bakarrari zor zaizkiola proposatzen dut. Kokapen aditzak dinamikoak dira eta Prozesu burua islatzen dute syntaxian (Ramchand 2004 2008a *Lehen Faseko Sintaxiko Prozesu burua*). *Gogoan izan* bezalako predikatu analitiko soilak, ordea, egoera predikatuak dira eta ez dute halako buru sintaktikorik islatzen. Lan honen bigarren atalean (§2) arakatuko dut Prozesu buruaren eta *-tu* atzizkiaren arteko lotura.

Orain artean, kokapen aditzetan bi buru islatzen direla erakusti dut: Lekua eta Bidea. Bidea da islatu beharreko gutxieneko egitura-oskola. Horregatik Lekua baino azaleratzen ez duen inesiboaren gainean ezin da kokapen aditzik eratu: *\*etxeanttu*. Izan ere, Erabateko Lexikalizazioaren arabera, buru sintaktiko guztiak azaleratu behar dira lexikoki, eta *\*etxeanttu* bezalako batean ez da baldintza hori betetzen. Kokapen aditzek Bide sintagma islatzen dute eta Bide burua nolabait azaleratu behar da.

Hemendik aurrerakoan, Bidea mota zehatz batekoa izan behar dela erakutsiko dut: Helburua. Helburu sintagma da kokapen aditzen oinarrian dagoen adposizio sintagmaren gutxieneko eta gehienezko egitura-oskola. Beste bide mota batzuen gainean, esaterako, adposizio ablatiboaren (*-tik,-(e)tatik,-rengandik*) (Mujika 2008) eta hurbiltze adlatiboaren (*-rantz,-(e)tarantz,-re-ganantz*) gainean, ezin da kokapen aditzik sortu:


(26) Ezinezko kokapen aditzak ablatiboaz eta hurbiltze adlatiboaz

*etxe-tik-tu	*etxe-rantz-tu
*ohe-tik-tu	*ohe-rantz-tu
*esku-tik-tu	*esku-rantz-tu
*bere-gadik-tu	*bere-ganantz-tu

Ablatiboa eta hurbiltze adlatiboa bide mota desberdinak adierazteko adposizioak dira. Bide buruaren adierazpideak badira, orduan zergatik ez ote dira onargarriak kokapen aditzen oinarri gisa? Pentsa genezake adlatiboaren eta gainerako Bide adposizioen arteko desberdintasuna literaturan ezaguna den *Helburu-Jatorri asimetriarekin* (ingelesez *Goal-Source*

*Asymmetry*)<sup>10</sup> zerikusia daukela. Munduko hizkuntzetan Helburuak eta Jatorriak ez dira era simetrikoan adierazten: Jatorriak Helburuak baino markatuagoak izan ohi dira (Ikegami 1982; Pantcheva 2011) (e.g. ingelesez *there* esango dugu Helburua adierazteko, baina preposizioa gaineratu behar izango diogu, *from there*, Jatorria adierazteko) eta predikatu batzuetan Jatorria bakarrik azaleratu daiteke, baldin eta Helburua ere azaleratzen badugu (Levin 1993: 177).<sup>11</sup> Nire ustez, euskarazko kokapen aditzak Helburuen gainean bakarrik eratu ahal izatea asimetria horren beste erakusgarri bat da. Asimetria hori azaltzeko, Bide mota desberdinek egitura desberdina dutela proposatuko dut, bereziki Pantchevak (2011) egiten duen Bidearen banaketari segituz. Pantchevaren (2011) arabera, Bidea buru txikiagoetan dekonposa daiteke eta Bide buru bakoitzak bere egitura dauka:

## (27) BIDE MOTAK



Ikus daitekeenez, Pantchevak (2011) Jatorriak Helburuak baino konplexuagozat jotzen ditu, izan ere, bere analisiaren arabera, Jatorriak Helburuen gainean eratzen dira, Jatorri buruak Helburu sintagma hautatzen duelarik. Etxeparerekin (2013) bat etorriz, euskarazko *-tik* ablatiboak egitura hori bera lexikalizatzen duela proposatzen dut. Ablatiboak hiru tasun azaleratzen ditu, hots, [Jatorria], [Helburua] eta [Lekua], eta hortaz, adlatiboa baino konplexuagoa da. *Etxe-ra-tu* kokapen aditza zilegi denez eta *etxe-tik-tu*, aldiz, ez, HelburuS, kokapen aditzetan adposizio sintagmek izan dezaketen gehieneko egitura-oskola dela proposatzen dut.

<sup>10</sup> Literaturan maiz aurkitzen dugu Helburuarekiko joera (ingelesez *Goal bias*) delako gertakaria, Helburu-Jatorri asimetriarekin estuki loturik dagoena. Gramatikan ez ezik, psikolinguistikaren ere antzeman dute Helburuekiko joera handiagoa, Jatorriekiko baino (ikus adibidez Lakusta 2005; Lakusta & Landau 2005).


<sup>11</sup> Levinen (1993: 177) adibide hauetan ikus daitekeenez, Jatorria (*from a prince*) adieraz daiteke, baldin eta Helburua (*into a frog*) ere adierazten bada:

- The witch turned him from a prince into a frog
- The witch turned him into a frog
- \*The witch turned him from a prince

Bide beretik, Gehrkek (2008: 229) erakutsi duen bezala, ingelesez *the frog turned blue* diogunean —«igela urdin kolorekoa bihurtu zen»—, urdina helburu kolore gisa bakarrik interpreta daiteke, eta inoiz ere ez jatorrizko kolore gisa (c.f. *from blue*).

Gatozen orain hurbiltze adlatiboen egitura aztertzeraz. Pantchevaren (2011) teorian, helburuzko hurbiltze bideak Eskala buruak Helburua hautatzen duenean sortzen dira. Euskarazko hurbiltze adlatiboa era horretan erazten da (28). Hurbiltze adlatiboa adlatiboa soila baino konplexuagoa dela *-rantz* adposizioaren morfologian ere antzeman daiteke adlatiboari dagokion *-ra* atzizkiari *-ntz* atzizkia gaineratzen baitaiaio.

(28) HURBILTZE ADLATIBOA



Kokapen aditzen egiturara bueltatuz, hurbiltze adlatiboen gainean sortutako aditzak ezinezkoak izateak (*\*etxe-rantz-tu*) berriz ere adierazten du kokapen adposizioen oinarrian dagoen adposizio sintagmak gehienezko egitura duela. Goian esan bezala, gehienezko eskola HelburuS da. Baina zergatik ote dago horrelako murriztapen bat hizkuntzan? Bigarren atalean (§2), murriztapen hori azaltzen saiatuko naiz.

Hurrengo atalera (§2) mugitu baino lehen, datu hauetatik datorren beste ondorio bat aipatu nahi nuke. Erabateko Lexikalizazioa azaldu dudanean aurerratu dudan moduan, kokapen aditzetan isilpeko aditzik ez dagoela uste dut, H&Ken (1993) kontra, baita Oihartzabalen (2003) kontra ere. Eman ditudan datuek eta kokapen aditzen azpian dagoen adposizioaren dekonposizioak erakutsi du kokapen aditzak ezin direla edozein adposizio sintagmaren gainean eraiki; ablatiboa edo hurbiltze adlatiboa daramaten aditzak ezinezkoak dira. *Joan* bezalako aditz batek, ordea, berdin hautatu dezake adlatibo, ablatibo edo hurbiltze adlatiboko sintagma bat:

- (29) a. Neskak etxera joan dira  
 b. Neskak etxetik joan dira  
 c. Neskak etxerantz joan dira

Kokapen aditzetan aditz isil bat egongo balitz, ezingo genuke ulertu aditz horrek zergatik ezingo lukeen ablatibo bat edo hurbiltze adlatibo bat hautatu, jakinda ageriko *joan* aditzak hala egin dezakeela. Hautapen analisi baten barruan (H&K 2002, 2005) ere, ez legoke azalpen errazik. *Etxera* bezalako erro bat aditzean bertan sortzen bada eta isilpeko adposizio sintagma bat zilegiztatzen badu, zergatik ezingo luke *etxetik* erroak gauza bera egin?

## 2. Gertakariak eta adposizioak

Aurreko atalean (§1.2) kokapen aditzak HelburuSren gainean eratzten direla erakutsi dut, eta ez beste motatako adposizioen gainean. Edozelan ere, murriztapen horrek galdera batera eraman gaitu, hots, zergatik egiten ote du hizkuntzak adposizioen arteko bereizketa hori kokapen aditzak sortzean? Atal honetan, galdera hori erantzuten saiatuko naiz eta, horretarako, aditzen (edo gertakarien) barne egitura arakatuko dut. Ikusiko dugunez, gertakarien eta adposizien egiturak isomorfikoak dira. Bi egituren arteko paralelismo horrek, hain zuzen, argituko du kokapen aditzen murriztapenaren misterioa.

### 2.1. *Prozesu azpigertakaria eta -tu atzizkia*

Utz ditzagun momentuz kokapen aditzak alde batera eta gatozen bestelako euskal aditzetara. Berro (argitaratze) lanean, *-tu* atzizkia Prozesu azpigertakariarekin loturik dagoela erakusten dut. Ramchanden (2004, 2008a et seq) *Lehen Faseko Sintaxian* oinarrituta, gertakariak hiru azpigertakarietan banatu daitezkeela uste dut: Abiatzea, Prozesua eta Emaizta. Hiru buru horietan, Prozesuak izaera gertakariduna txertatzen du (Fábregas & Marin argitaratze). Bada, *-tu* atzizkiak eta gertaeratasuna txertatzen duen Prozesu buroak harreman estua dutela ikusiko dugu atal honetan.

Zenbait froga linguistikok *-tu* eta Prozesuaren arteko korrelazioa frogatzen dute (ikus Berro argitaratze). Lerro hauetan, *-tu* atzizkidun forma analitikoetan agertzen diren bi testuinguru aurkeztuko ditut. Ikusiko dugunez, *-tu* atzizkidun konfigurazio analitikoetan, *-turen* eta Prozesuaren arteko lotura erabatekoa da.

Aipatu nahi dudana lehen ebidentzia hainbat aditzen gertaera/egoera adieraren aldakortasunean datza. Euskarazko aditz batzuek, *ezagutuk* eta *sinistuk* esaterako, gertaera edo egoera adiera izan dezakete, hartzen duten atzizkiaren arabera; *-tu* edo *-tzen*. *-Tu* hartzen dutenean, aditz inkohatiboak dira, hortaz, gertaerak adierazten dituzte (30). *-Tzen* atzizkidunak direnean, aldiz, egoera aditzak dira: subjektuaren ezaugarriak adierazten dituzte, hots, jende asko ezagun izatea (31a) eta fededuna izatea (31b).

- (30) a. Mikelek jende asko ezagutu du
- b. Mikelek gezurra sinistu du
- (31) a. Mikelek jende asko ezagutzen du
- b. Mikelek Jainkoarengan sinisten du

Desberdintasun hori euskarazko beste aditz batzuetan ere antzeman daiteke, adibidez, *pentatu*, *gustatu* eta *ulertu* predikatuetan. Vendlerrek (1957)

aipatzen du lehenengoz (nik dakidala) horrako kontraste hori, ingelesezko *think* eta *believe* bezalako aditzetan. Haren esanetan, egoera edo lorpena adieraz dezakete testuinguruaren arabera. Euskaraz, egoera/lorpena aldakortasuna *-tu/-tzen* atzizkien arabera da.

Atzizkien eta aditzen azpigertakerien arteko harremana beste aditz mota batean ere ikus daiteke. Euskaraz egoera aditz berri batzuk ugaltzen hasi dira (32), ziurrenik hizkuntza erromantzeekiko ukipen egoerak eraginda. Erabilera hauek berri samarrak direla esango nuke, eguneroko hizketa ez-formaletan ohikoak izan arren, idatzizko corpusetan ez baitute ia agerpenik. Hiztunei galdetuta, batzuek ez dituzte guzti-guztiak onartzen; galdetutakoen artean *pisatu*, *neurtu* eta *erre* dira errazen onartzen direnak.

- (32) a. Asko pisatzen du [ez dakit eraman ahal izango duzun]  
(A. Cano 2004: 63)
- b. 27 kilometro neurtzen ditu alde zabalean [...]  
(Berria, 2004-12-16)
- c. Platerak erretzen du
- d. Zoruak irristatzen du
- e. Piper hauek asko pikatzen dute
- f. Keak oso txarto usaintzen du
- g. Igerileku honetan ez du asko kubritzen

Adibide horietan, aditzek egoera baten berri ematen dute, hots, subjektuaren ezaugarri bati egiten diote erreferentzia —subjektuaren pisu handiari (32a), neurriari (32b), tenperaturari (32c), azalera irristakorrari (32d), zapo-reak (32e), usainari (32f) eta sakonerari (32g)— eta ez dute gertaerarik adierazten. Nabarmena da aditzon erabilera berri hau *-tzen* atzizkiarekin bakarrik gertatzen dela. Adiera horretan, ezinezkoa da predikatu horiek *-tu* atzizkiarekin konbinatzea.

- (33) a. ?Asko pisatu du
- b. ?27 metro neurtu ditu
- c. \*Platerak erre du
- d. \*Zoruak irristatu du


Predikatu horiek *-turekin* agertu ahal ez izatea *-turen* izaera gertakaridunari egozten diot. Goiko predikatu horiek egoerak adierazten dituzte, eta hortaz, ez dira *-turekin* bateragarriak. Lehen esan dudana bezala, gertakariak hiru azpigertakarietan banatzen direla uste dut —Abitatzea, Prozesua eta Emaizta— Ramchandi (2004 2008a et seq) segika. Banaketa horretan, Prozesu buruak ematen dio izaera gertakariduna predikatuari (Fábregas & Marín argitaratzeak). Hori oinarri harturik, *-turen* lexikalizazioa nolabait Prozesu az-

pigertakariarekin loturik dagoela proposatzen dut: syntaxian Prozesu burua egoteak *-tu* azaleratzea eragiten du.<sup>12</sup>


## 2.2. Gertakarien eta adposizioen barne-egitura sintaktikoa

Gatozen berriro euskarazko kokapen aditzetara. Lehen atalean (§1) erakutsi dut kokapen aditzak Helburu sintagmen gainean baino ezin direla eraiki. Halaber, bigarren atalaren hasieran ikusi dugu *-tu* atzizkiak Prozesu burua syntaxian dagoela adierazten duela. Bada, orain, gertakarien barne-egitura (Ramchand 2004, 2008a et seq) eta adposizioen barne-egitura (Svenonius 2006; Pantcheva 2011) bat datozela erakutsiko dut. Izan ere, Ramchandek berak (2008a: 41) dioen bezala, gertakari dinamikoa bide baten ezaugarri topologikoekin parekatuz gero, abiatze puntua edo jatorria Abiatzea izango litzateke, zati dinamikoa Prozesua litzateke, eta amaiera puntua Emaiza litzateke.

### (34) a. GERTAKARIEN DEKONPOSIZIOA (Ramchand 2004, 2008a et seq)



### b. ADPOSIZIOEN DEKONPOSIZIOA (Svenonius 2006; Pantcheva 2011)




Bi egitura horiek isomorfikoak dira: Jatorria Abiatzearen parekoa da, Helburua Prozesuaren parekoa eta Lekua Emaizarena. Paralelotasun hori go-goan, errazagoa zait orain kokapen aditzen murriztapena ulertzea. *-Tu* ahoskatzea Prozesua egotearen ondorio bada, eta Helburua eta Prozesua parekoak

<sup>12</sup> Aztertzeko daukat oraindik, *-tuk* beste testuinguru sintaktiko batzuetan izan dezakeen funtzioa, izan ere, *behar izan* bezalako aditz modal baten osagarri gisa, egoera aditzekin ere ager daiteke.

badira, orduan azal dezaket *-tuk* adposizio adlatiboa baino ez hautatzea. *-Ra* hiztegi alea, euskarazko adposizio adlatiboa, lexikalizazio prozesuan bi buru-bikoterekin lotu daiteke aukeran: Helburu eta Leku buruekin batetik, edota Prozesua eta Emaizta buruekin, bestetik. Zilegi da *-ra* atzizkiak bi buru-bikoteak lexikalizatzea, bi buru-bikoteak parekoak baitira, bai egitura aldetik, bai topologikoki ere.

(35) *Etixeratu* aditzaren barne-egitura



*-Ra* adlatiboaren gainean bakarrik eratu daitezke kokapen aditzak, *-rak* bakarrik bat egiten du-eta Prozesu buruarekin. Aztertu ditugun gainerako adposizioak, alegia, *-an* inesiboa, *-tik* ablatiboa eta *-rantz* hurbiltze adlatiboa, ezin dira aditz horien oinarri izan, ezin baitira topologikoki, ez eta egitura aldetik ere, Prozesuarekin parekatu.

### 3. Ondorioak

Lan honetan euskarazko kokapen aditzen egitura deskribatu eta arakatu dut. Hale & Keyserren (1993) hipotesia berretsi dut, alegia, kokapen aditzak adposizio sintagmen gainean eratzen direlako hipotesia. Hala ere, oinarrian dagoen adposizioa mota eta egitura zehatz batekoa dela erakutsi dut: HelburuS bakarrik izan daiteke eta ez LekuS, JatorriS, ezta EskalaS ere. Hala-ber, egitura hauetan aditz isil bat dagoela proposatzeak eragiten dituen arazo empirikoak azaldu ditut. Hipotesi horretan, *etxetik joan naiz* esatea posible bada, ezin da azaldu zergatik ez den gramatikala *\*etxetiku naiz*. Horrela, kokapen aditzetan isilpeko aditzik ez dagoela proposatu dut, Hale & Keyserrek (1993) eta Oihartzabalek (2003) iradokitakoaren aurka. Lan honetan plaza-ratu dudan hipotesia bestelakoa da: *-ra* hiztegi alea lexikalizazio-prozesuan bi egiturekin lotu daiteke aukeran: adposizioen dekonposizioan dauden Helburu eta Leku buruekin (Svenonius 2006; Pantcheva 2011) edota gertakariaren barne-egituran dauden Prozesu eta Emaizta buruekin (Ramchand 2004, 2008a et seq). Bi egiturak parekoak dira topologikoki eta horregatik *-rak* biak lexikalizatu ditzake.



## Aipamenak

- Berro, A. (argitaratzeaz). *Ergativity, Intransitivity and Auxiliary Alternation in Basque: a Micro-Comparative Perspective*. doktore tesia, UPV/EHU eta Université Bordeaux Montaigne.
- Chomsky, N. 1981. *Lectures on Government and Binding*. Dordrecht: Foris.
- Demirdache, H. & M. Uribe-Etxebarria. 1997. «The Primitives of Temporal Relations», eskuizkribua, University of British Columbia / University of California at Irvine.
- Eguzkitza, A. 1997. «Postposizioak euskal gramatikan». In I. Turrez, A. Arejita, & C. Isasi (arg.), *Studia Philologica in Honorem Alfonso Irigoien*. Bilbao: University of Deusto. 83-88.
- Etxepare, R. 2013. «Basque primary adpositions from a clausal perspective». *Catalan Journal of Linguistics* 12, 1-42.
- Etxepare, R. & B. Oihartzabal. 2012. «Datives and adpositions in north-eastern Basque». In B. Fernández & R. Etxepare (arg.), *Datives in Variation: a Micro-Comparative Perspective*. Oxford: Oxford University Press.
- Euskaltzaindia.1991 [1985]. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I*. Nafarroa: Nafarroako Foru Elkargoa eta Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia.1997 [1987]. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*. Nafarroa: Nafarroako Foru Elkargoa eta Euskaltzaindia.
- Fábregas, A. 2007. «The Exhaustive Lexicalization account of directional complements». In M. Bašić, M. Pantcheva, M. Son & P. Svenonius (arg.), *Trømsø Working Papers on Language and Linguistics: Nordlyd 34.2, special issue on Space, Motion and Result*. Trømsø: University of Trømsø.165-199.
- Fábregas, A. & R. Marin (argitaratzeaz) «Differentiating eventivity from dynamicity: the Aktionsart of Davidsonian state verbs». In *Proceeding of LSRL 42*.
- Gehrke, B. 2008. *Ps in motion: On the Semantics and Syntax of P Elements and Motion Events*. doktore tesia, Utrecht University, Utrecht.
- Haddican, B. & G. Tsoulas.2012. «A continuum of deficiency for Basque infinitives». In U. Etxebarria, R. Etxepare & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun Phrases and Nominalizations in Basque: Syntax and Semantics*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Hale, K. & S.J. Keyser.1993. «On Argument Structure and the Lexical Expression of Syntactic Relations». In K. Hale and S.J. Keyser (arg.), *The View from Building 20*. Cambridge (MA): MIT press. 53-109.
- Hale, K. & S.J. Keyser. 2002. *Prolegomenon to a Theory of Argument Structure*. Cambridge (MA): MIT Press.
- Hale, K. & S.J. Keyser. 2005. «Aspect and the syntax of argument structure». In N. Erteschik-Shir & T. Rapoport (arg.), *The Syntax of Aspect: Deriving Thematic and Aspectual Interpretation* Oxford: Oxford University Press.
- Hualde, J.I. 2002. «Regarding Basque postpositions and related matters». In X. Arriagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*. ASJUren Gehigarriak 44. Bilbao: UPV/EHU. 325-340.
- Jackendoff, R.1983. *Semantics and cognition*. Cambridge (MA): MIT Press.
- Laka, I. 2004. «Ari progresiboaz: euskararen kasu markak». In P. Albizu & B. Fernández (arg.), *Euskal Gramatika XXI. mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Bilbao: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua. 113-132.

- Laka, I. 2006. «Deriving split ergativity in the progressive: the case of Basque». In A. Johns, D. Massam, & J. Ndayiragije (arg.), *Ergativity: Emerging Issues*. Dordrecht/Berlin: Springer. 173-195.
- Lakusta, L. 2005. *Source and Goal Asymmetry in Non-linguistic Motion Event Representations*. doktorego-tesia, Johns Hopkins University, Maryland.
- Lakusta, L. & B. Landau. 2005. «Starting at the end: The importance of goals in spatial language». *Cognition* 96, 1-33.
- Larson, R. 1988. «On the double-object construction». *Linguistic Inquiry* 19, 335-391.
- Levin, B. 1993. *English Verb Classes and Alternations: A Preliminary Investigation*. Chicago: University of Chicago Press.
- Mateu, J. & L. Amadas 1999. «Extended Argument Structure: Progressive as Unaccusative». *Catalan Working Papers in Linguistics* 7, 159-174.
- Mujika, J.A. 2008. «Adlatiboaren berbalizazioaz». In X. Artiagoitia & J. Lakarra (arg.), *Gramatika Jaietan: Patxi Goenagaren omenez*. ASJU. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Oihartzabal, B. 2003. «Lexical causatives and causative alternation in Basque». In B. Oihartzabal (arg.), *Inquiries into the Syntax-Lexicon Relations in Basque*, ASJUren Gehigarriak 46. Bilbao: UPV/EHU. 223-253.
- Pantcheva, M.B. 2011. *Decomposing Path. The Nanosyntax of Directional Expressions*. doktore-tesia, University of Trømsø.
- de Rijk, R. 2008. *Standard Basque. A Comprehensive Grammar*. Cambridge/London: MIT Press.
- Ramchand, G. 2004. «First Phase Syntax». Draft of the *Workshop on Tense, Aspect and Modality at GLOW*. Thessaloniki.
- Ramchand, G. 2008a. *Verb Meaning and the Lexicon: A First Phase Syntax*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Ramchand, G. 2008b. «Lexical Items in complex predicates: Selection as under-association». In P. Svenonius & I. Tolskaya (arg.), *Trømsø Working Papers on Language and Linguistics: Nordlyd 35.1, special issue on Complex Predication*. Trømsø: University of Trømsø. 115-141.
- Riemsdijk, H. & Huybregts, R. 2002 «Location and locality». In M. van Oostendorp & E. Anagnostopoulou (arg.), *Progress in Grammar: Articles at the 20th Anniversary of the Comparison of Grammatical Models Group in Tilburg*. Amsterdam: Meertens Instituut. 1-23.
- Svenonius, P. 2006. «The emergence of Axial Parts». In P. Svenonius (arg.) *Trømsø Working Papers on Language and Linguistics: Nordlyd 33.1, special issue on Adpositions*. Trømsø: University of Trømsø.
- Svenonius, P. 2008. «Spatial P in English». In G. Cinque & L. Rizzi (arg.), *The Cartography of Syntactic Structures* vol.6. New York: Oxford University Press.
- Talmy, L. 2000. *Toward a cognitive semantics*, vol II. Cambridge (MA): MIT Press.
- Vendler, Z. 1957. «Verbs and Times». *The Philosophical Review*, 66: 2, 143-160.

*Corpusak*

- Sarasola, I. 2010. *Eguno Euskararen Hiztegia*. Euskara Institutua. UPV/EHU. [[http://www.ei.ehu.es/p289-content/en/contenidos/informacion/euskara\\_inst\\_erdaretan/en\\_erdaret/eeh.html](http://www.ei.ehu.es/p289-content/en/contenidos/informacion/euskara_inst_erdaretan/en_erdaret/eeh.html)]
- Sarasola, I., P. Salaburu, J. Landa & J. Zabaleta. 2011. *Ereduzko Prosa Gaur*. Euskara Institutua. UPV/EHU. [<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>]
- Landa, J. 2008. *Corsintax*. Ametzagaña. [<http://weblingua.ametza.com/cgi-bin/corsintax/bila.pl?k=&c=libuHego&l=abisatu>]